mailope

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

351 2026ko azaroa



Motorra piztu aurretik, berrikusi zure medikazioa

Sendagai batzuek zure gidatzeko gaitasunari eragin diezaiokete. Adi egon eta ontzian ohartarazpen piktograma ikusten baduzu, kontsultatu erabilera-orria.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

Tráfico Navarra
Nafarroako Trafikoa

NAVARRA ⋮ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

“MOMENTURIK ONENEAN NAGO”

Aimar Azpiroz Beunza (Arruitz)



Mailope

Aimar Azpiroz Beunza arruiztarra 24 urteko mendi lasterkaria da. Aurreko urtean lesionatu egin zen, baina gogotsu da bueltan eta markak apurtzen dabil azken hilabeteotan.

Azkenaldian, garaipenak eta errokorrak pilatzen ibili zara.

Bai, aurten bost lasterketa egin ditut, eta bostak irabazi. Ezin kexatu. Udan Milagron hasi nintzen, han egiten den lasterketa txiki batean. Horren ondotik, Andorrara joan nintzen, 19 kilometroko lasterketa bat egitera. Ondoren, Sorian eta Canfranc-en izan nintzen eta orain dela gutxi Etxarri-Aranatzen mendira joan-etorria egin dut. Sorian eta Canfranc-en errekorra lortu nuen. Canfranc-ekoarekin oso pozik geratu nintzen, espero baino askoz hobeki egin bainuen.

Zein izan duzu gogorrena?

Denak dira gogorrak. Baina, agian, Canfranc-ekoa, luzeena zelako. 26 kilometro dira, baina dexenteko desnibela du eta lur zaila korrikarako; harri asko dago eta oso teknikoa da.

Hala ere, oso sentsazio onekin atera zinela esan zenuen bukatutakoan.

Bai, hori da. Azkenaldian, nire ibilbideko momenturik onenean nagoela uste dut. Eta maila honetan, lasterketak gogorrak egiten dira baina, aldi berean, asko disfrutatzen duzu. Zure gorputzak ongi erantzuten duela ikusten duzu eta, hala izanik, asko disfrutatzen da horrelako lasterketa batean.

Progresioa nabaritu duzu azken urtean?

Bai. Iaz lesionatuta ibili nintzen eta ez nuen batere korrika egin. Aurten, urte hasieran, entrenatzen hasi nintzen eta sentsazioak hobera joan dira denbora guztian.



Luiz Difuba



Mailope

Egin dezagun denboran atzera: noiz eta nolatan hasi zinen mendi lasterketan?

Aitona, Arruizko Txikito, korrikalaria izan bazen ere, hamabost edo hamasei urtetara arte, eskupilotan baino ez nintzen ibiltzen. Eta, behin, Atarrabian zegoen mendi lasterketa baten berri eman ziguten lauzpabost lagunoi, eta, asko pentsatu gabe, izena eman genuen. Hori izan zen nire aurreneko mendi lasterketa. Harrezkeroztik, mundu honetan sartu naiz eta orain ezin atera.

Nolakoa izan zen lehenengo lasterketa hura?

15 kilometro inguruko lasterketa izan zen eta, kasik batere entrenatu gabe, hara joan ginen. Hura bai gogorra egin zitzaidala! Baina hurrengo urterako hasi nintzen apur bat prestatzen eta, bigarren hartan, bigarren postua erdietsi nuen. Eta, hortik, bi urtetara, lehenengoa.

Mendiko probetara baino ez zara aurkezten...

Inoiz ibili izan naiz asfaltoan, baina gehien-gehiena mendian egin izan dut. Asfaltoko lasterketak monotonoagoak dira. Mendi lasterketan paisaia asko aldatzen da eta denbora guztian egokitu behar zara. Eta hori da gustatzen zaidana, mendia.

> *"Hamabost edo hamasei urtetara arte, eskupilotan baino ez nintzen ibiltzen."*

Nola prestatzen zara?

Orain arte entrenatzaile batekin ibili izan naiz, baina, aurten nire kasa aritzeko erabakia hartu dut.

Astero egun batez deskantsatzen saiatzen naiz. Gainerako egunetan, betiere eguraldiaren eta prestatzen ari naizen lasterketaren arabera, bospasei egunetan goizez egiten dut korrika eta bizpahirutan bizikletaz ibiltzen naiz arratsaldez, suabeago. Eta hemen inguruan egiten dut guztia. Oso inguru aproposa dut.

> *"Elikadura zaindu ezean errendimendua asko jaitsi daiteke"*

LEKUONBERRI TABERNA
948 507 628
lekunberritaberna@gmail.com
Aralar, 19 bajo
31870 Lekunberri
Lekunberri Taberna
mailope
PUBLIZITATEA
MAILOPE ALDIZKARIAN
info@mailope.eus
660 476 041
eta ARALAR IRRATIAN
aralar.irratia@mailope.eus
676 909 002
TAXI
TAXILON
LONTXO | OTAMENDI | ARTOLA
661 202 249
lotamendi5@gmail.com
ATALLU-ARAITZ
9 PLAZA
CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
www.carpinteriaazpiroz.es
Industrialdea, 15 | LEKUNBERRI 948 507 343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com
ekin rotulación
www.ekinrotulacion.com | 948 853 279


Luz Difusa

"Lesionatu nintzenean, inork ez zuen diagnostiko zehatzik ematen jakin"

Elikadura ere bereziki zaintzen duzu?

Bai. Elikadura zaintzea ezinbestekoa da. Hori egin ezean, errendimendua asko jaitsi daiteke, eta lesioak heltzeko arriskua handitzen da. Horregatik, egiteko dudan entrenamenduaren araberakoa izaten da elikadura.

Talde batean aritzen zara.

Bai, Domusa Teknik Lana taldeko kidea naiz. Badugu nolabaiteko babesa eta kontzentrazioak egiten ditugu, baina, berez, oso bakarkako kirola da. Nork bere aldetik egiten du prestaketa.

Babesleena taldearen bitartez izaten da?

Hori da, talde bakoitzak bere babesleak ditu. Eta korrikalari batzuek beren babesle propioak dituzte.

Iaz lesionatu zinela ko-mentatu duzu...

Bai. Beti izan ditut lesio txikiak. Orkatila dela, edo ahuspez erori eta hortzak apurtzen dituzula. Baina, aurreko urtean, oso ongi hasi eta Nafarroako txapelketa irabazi berritan nintzela, entrenamendu batean abduktore aldean hasi nintzen mina sumatzen. Mediku eta fisioekin ibili nintzen baina inork ez zuen diagnostiko zehatzik ematen jakin. Oso frustragarria izan zen hori. Bospasei hilabetez ibili nintzen entrenatu ezinik eta psikologikoki gogorra izan zen. Horren ondotik, zaila da berriz martxa hartzea, beldurrez ateratzen baitzara entrenatzera. Beti min hori bueltatuko den beldurrez. Baina, momentuz, ez da heldu eta horrela jarraitzea espero dut.

Aurrera begira, zer dugu?

Hiru lasterketa txiki ditut orain urtea bukatzeko, Sorian bat eta bi Lizarra inguruan. Plazeragatik egitekoak. Eta horien ondotik, atseden txiki bat hartuko dut datorren denboraldiari ekin aurretik.

"Lasterketa luzeagoak egiten hasi nahi dut, baina gaztea naiz oraindik; ez dago presarik"

Espero dut Espainiako txapelketetarako sailkatzea eta maila ona ematea. Eta, horrez gain, lasterketa luzeagoak egiten hastea. Baina pausoz pauso egin behar dira gauzak. Orain hori eta aurrerago beste gauza batzuk. Gaztea naiz oraindik eta ibilbide luzea egiteko. Ez dago presarik.

IRACHE
tanatorioak
Betidanik
ALTSASU | IRURTZUN
LEKUNBERRI | BETELU | LEITZA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK
948 197 070
www.tanatoriosirache.es

Construcciones Gañarbe
www.construccionesganarbe.com
ERREABILITAZIOAK | IGELTSERITZA
FATXADAK | TEILATUAK
Oztegin, 2 | LEKUNBERRI
construccionesganarbe@gmail.com
948 504 351

KO
MI
KIA



Aitor Balda Irungarai (Lekunberri)

IRI
TZIA

ASKAPENA

Xanti Begiristain Madotz (Auritz)

Euskal Herriko herri txiki bateko etxe batean, senideak haien artean haserretu ziren behin batean, herentzian jasotako gurasoen etxea zela eta ez zela, orain dela hogei urte inguru.

Esan genezake, bereziki senide bat haserretu zela gainerako guztiekin, eta, harrezkeroztik, beren arteko harremana oso gatazkatsua izan zen, biren artekoa batez ere.

Senide hura, ordurako, herritik kanpo bizi zen, eta, baita orain ere. Azken bi hamarkada hauetan, herrira noizean behin itzultzen zen, baina diskrezio handiarekin, hau da, batik bat bere senideekin ez koinziditzeko. Herrikide batzuekin, tarteka-marteka topatzen zen, baina haiekin ez zen deus ere txarrik gertatzen. Senideekin, ordea, harremana oraindik oso atezua zen, batez ere, batekin.

Hainbeste gaiztotu zen bi pertsona haien arteko harremana, non, normaltasunez joaten ez zen hura, ez baitzen gehiagotan itzuli herriko jaietara, eta, horrek amorru ikaragarria sorrarazten zion.

Horrela, egoera tenkatu eta tentsioz betetako hartan iraun zuten gauzek ia-ia bi hamarkadaz. Batzuek animatzen zuten, haserrealdi hura gainditu eta has zedin herriko jaietara joaten, bizimodua ere pixka bat normalizatzeko, baina erresistentzia gotorra izan zen urte askoan.

Azkenean, uda honetako jaietan, ordea, erabaki zuen, baietz, joan behar zuela herrira, eta, halaxe egin zuen. Bat-batean, errondako hasieran agertu eta jende guztia harrera ona egiten hasi zitzaion: batek eskua eman, beste batek besarkada eman eta beste batzuek musuak eman poz, algara eta irribarre artean.

Azkenean, senideek ere normaltasunez hartu behar izan zuten bere presentzia han; baita harremanik zailena zeukan haurrideak ere.

Hortaz, eta, laburbilduriK, esan liteke, herri hartan, aurtengo jaiak askatzaileak izan direla, pertsona batzuen arteko harremana nabarmenki hobetu delako eta bizikidetza baretu.



Hurrengoa:

Ibai Flores Eskamendi (Atallu)

maite ditu maite gure bazterrak



Aitzol Zubillaga Sasiain (Betelu)

Zergatik aukeratu dut?

Erraz egin daitekeen bide polita da Betelutik Lezaetarakoa. Laburra da eta hasierako aldapa konpentsatzen du ondorengo jaitsierak.


BETELU - LEZAETA

Ibilbidea: Lineala

Distantzia: 3 km

Desnibela: +95 m


Zailtasuna: Erraza











Bidea:

1. Beteluko elizaren atzetik hasi eta kartel txuriaren ondoko aldapan gora egin.
2. Pistan gora eginda, Aztitxoko langara iritsi eta gorantz jarraitu.
3. Aiztitxoko askara iritsita gorantz jarraitu. Betelu eta Lezaetaren arteko muga pasata, beherantz egin.
4. Hormigoizko pistara iritsita beherantz jarraitu, herriraino.
5. Azkeneko langa pasata, Lezaeta herrira iritsi.

ILARGI TABERNA ITXI DUTE

Lekunberri

Lekunberriko taberna historiko batek pertsina jaitsi du, betiko.

Lau hamarkada baino gehiagoko ibilbideari amaiera eman zitzaion, urriaren 3an egindako agur festarekin.

Hainbeste urtetan herriari egindako ekarpenagatik, Lekunberriko festetako suziria pizteko ohorea eman zitzaien, Galburu okindegiarekin eta Lanbroa liburudendarekin batera, urriaren 8an.

ELIKAGAIEN ALFERRIK GALTZEAREN KONTRAKO KANPAINA

Betelu

Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoak sortutako Elikagaiak alferrik galtzearen aurkako kanpaina zabaldu du Beteluko Udalak.

Horretarako, aprobetxamendu-errezeten inguruko liburu digitala eta gida txiki bat helarazi die herritarrei, iraungitze-data eta kontsumo lehentsiaren data bereizteko aholkuak emateko. Janaria aprobetxatuz eta gutxiago botaz planeta eta poltsikoa zaindu daitezkeelako ideia hedatzea du helburua kanpainak.

UITZIKO EPELETA GARBILEKUAREN INAUGURAZIOA

Uitzi


Juanjo Zubieta

Irailaren 25ean, Uitziko festen egitarauaren barruan, Epeleta garbilekuaren inaugurazioa egin zuten.

Garbilekuaren zaharberritzean, Ondare kultur elkarteak, Iturraskarrik eta Uitziko kontzejuak hartu dute parte.

Teilatua berritu da, hormak ere konpondu dira, eta estruktura osoari, orokorrean, konponketak egin zaizkio.

Auzolanean egin zen, orain dela urte batzuk garbileku handiaren zaharberritzea eta, aurten, Epeletaren txanda heldu da. Ondarea berreskuratzeko finantzaketa Uitziko kontzejuak hartu du bere gain.

JOSKINTZA ETA TAILAKETA TALLERRAK MARTXAN

Orokorra

Lekunberrin tailaketari ekin zioten eta, Araitzen, Euskaraz bizi taldeak antolatutako joskintza tailerrari.

Urritik maiatzera ibiliko dira talde biak beren lanetan buru-belarri.



MAILOPEREN 350. ZENBAKIAREN AURKEZPENA

Orokorra

Urriaren 2an, Gabarin, aurkeztu ziren proiektu komunikatibo berriaren xehetasunak Arimarten taldearen musikak lagunduta. Amaieran mokadutxo bat hartzeko tartea ere izan zen. Hurrengo egunean, formatu txikiagoan, aurkeztu zen egitasmoa Betelun.


Mailope

SORMEN LEHIAKETA ABIAN DA

Araitz eta Larraun

Araizko "Euskaraz bizi" taldeak eta Larraungo euskara batzordeak Sormen lehiaketa antolatu dute bi bailaretarako gazteentzat. Parte hartzaileak bailara bietako bizilagunak edota Araxes, Ibarberri eta Amazabaleko ikasleak izan daitezke.

LH 5 eta 6ko ikasleek bertsoan har dezakete parte, lau oin emanda, launa lerroko bi kopla sortuko dizute; gaia libre.

Mikroipuinari dagokionez, hiru kategoria izango dira: DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleak 3. eta 4. mailako ikasleak, eta 18 urtetik gorakoak.

Mikroipuinen luzeera ez dago zehazturik eta gaia librea izango da.

Lanak posta elektroniko bidez, larbeleareuskaraz@iparmank.eus helbidera bidali beharko dira, eta aurkezteko epea azaroaren 16ra arte izango da.

AEK-REN ESKAINTZA

Orokorra

Abian da euskaltegiko martxa Larraun-Ultzamaldeako AEKn.

Maila guztietan daude taldeak: hasiera maila, A2, B1, B2, C1 eta C2.

A2n goizez zein arratsaldez; gainerakoetan arratsaldez baino ez. B2ra arte astean bitan eta C1en eta C2n, astean behin. Izena emateko, 948 604 704 telefonora deitu edota larraun@aek.eus helbidera idatzi.





ARALARKO SAN MIGELEKO OSTATUA ITXITA

Eskualdea

Pena handiz, itxi behar izan dute Miren Zulaikak eta Manuel Salak Aralarko San Migeleko ostatua. Diotenez, beste aukerarik ez dute izan. Zorte txarra izan zuten eguraldiarekin neguko asteburuetan eta bero handiegia uda aldera.

Irabazi eskasak izanik, negua pasatzeko modurik ez dute ikusi.

Azken lau urteotan arduratu dira senar-emazteak ostatuaz, eta, orain, Torralba del Rioko Kodesko santutegian ibiliko dira.



EUSKARAREN EGOERAZ HAUSNARTZEKO HITZORDUA

Larraun

Urriaren 23an, ostiralarekin, "Esnatu: gure hizkuntzak har dezan arnas" izenburupean, hausnarketarako hitzaldia antolatu zuen UEMAk Larraungo Gabari Gune Irekian.

Euskararen egoera aztertuta, arnasguneen etorkizunaz eta UEMAren estrategiaren inguruan mintzatu ziren.

Helburua erdiesteko, eragileen arteko konpromiso dinamika batzuk ezarri beharko direla dio mankomunitateak.


Besteak beste, ezinbestekoa deritzote transmisio naturala bermatzen duten arnasguneen babesan sakontzea eta erronka berrien aurrean euskara erdigunean jartzeari.





AUTOBUS - ZERBITZU BERRIA

Iruñea – Irun – Donostia.
Baztan – Bidasoa – Ultzama Eremua.



Edonon bizi zarela ere, mugi zaitezen



NBUS irudia duten autobus berriak, eraginkorragoak, irisgarriagoak eta doako wifiarekin.

Ordutegi eta maiztasun gehiago.

Berria.
Eskaeraren Araberako Garraio-Zerbitzuak.

L-400
Iruñea
Mugairi
Elizondo
Donostia

L-401
Eskaeraren araberako garraio-zerbitzuak
Baztan
Bortiziak
Malerreka

L-402
Iruñea
Ultzama

L-403
Eskaeraren araberako garraio-zerbitzuak
Lantz
Iruñea



Ordutegiak, geralekuak eta txartelen erosketa hemen

Informazioa eta bezeroarentzako arreta
607 15 12 57
info@bbumovilidad.com
www.bbumovilidad.com

Jarrai gaitzazu sare sozialetan

Enpresa emakidaduna

BAZTAN BIDASOA ULTZAMA MOVILIDAD

NBUS

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Eneko Alustiza Sarasa



Urriaren 23an, 9 urte.

Zorionak pottoko!
Jarraitu horren jator eta bizkor!

Muxu handi bat denon partez!

Luka Mindeguia Urrestarazu



Azaroaren 23an, urte 1!

Zorionak Luka!
Egun polita pasa!
Muxu haundi bat
familia guztiaren partez.

Haizea Garmendia Aristi



Azaroaren 9an, 7 urte.

Zorionak ttikitina!!
Segi holaxe, gure
etxeko sorgiñe izaten.
Asko matte zatteu
famili guztik!!!

Alai eta Kai Pla Olivé



Azaroaren 16an 8 urte
eta azaroaren 20an 6 urte.

Zorionak bikote!!!
Egun zoragarria opa dizuegu.
Segi bizitzarekin bat gozatzen!
Familia guztiaren partetik muxu
handi bat!

Hegoa Jimenez Lizarraga



Azaroaren 24an, 6 urte.

Zorionak pitxin!!
6 urte jada.
Segi orain arte bezain alai eta
bihurri.
Asko maite zaitugu maitia!!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatz iezaguzu **info@mailope.eus** helbide elektronikora, edo WhatsApp bidez **660 476 041** telefonora hilaren 15a baino lehen.



lehen eta orain

LEKUNBERRIKO ARALAR KALEA

1930.urtea



2026. urtea



Ia 100 urte atzera eginda, gaurko autoen lekua idiek eta gurdiek zuten hartzen. Bertan daude, orain-dik ere, hala ere, Zapatanea eta Ostatu Berria, Aralar kalearen alde banatan.

Ezkerreko argazkian azoka eguna zen; eskuinekoan urriko azkenaurreko larunbata.

JULEN EZKURDIA (GORRITI)

Doinua: Iturengo arotza



Lekunberriko festak
ta juerga handia,
hobe genuke guk ba
eginda erdia.
Orain buelta ematen
a ze izerdia,
hurrengo urte arte
gorde aurpegia.

Mendi tartean beti
ta ez urrunegi,
moto, onddo zein ehiza
ditu maiteegi.
Hortxe du berak zorrotz
gatilu zein begi,
han edukiko dugu
Aimar Saralegi.

Hurrengoa: Aimar Saralegi (Lekunberri)

“LEHEN SEKTOREA ERRENTAGARRIA ERE BADA”

Felipe Etxetxikia Juanbeltz (Azpirotz)


Mailope

Felipe Etxetxikia Juanbeltz azpiroztarrak EHNE sin-dikatuko Nafarroako idaz-karitzaren lekukoa hartu zuen, maiatzean.

Zure ibilbidearen errepaso txiki bat egingo dugu?

Ni Azpirozkoa naiz. Gaztea nintzenean, han, etxe guztietan baserritarak ziren eta baserriak altxatu zituztenak esne-behiak izan ziren. Esneak bazuen bere prezioa eta Nekazaritza Politika Bateraturik (PAC, gazteleraz) ez zegoen, Europako Batasunean sartzeko baikeunden artean. Baina behin batasunaren barruan, Espainiari egokitu zitzaizkion kuotak zirela eta, sektoreak behera egin behar izan zuen.

Ondoren, nekazaritza ingenieritza ikasi nuen Iruñean. Oposizioa egin eta Departamentuan sartu nintzen zazpi urtez, kontzentrazio partzelarioan, eta oso ongi etorri zitzaidan administrazioak nola funtzionatzen duen ikasteko. Baina, 2015ean, betetzen ari nintzen lanpostua zuenak berreskuratu zuen, eta kanpoan geratu nintzen ni. Orduan, Euskal Herriko Nekazarien Elkartean hasi nintzen lanean.

Teknikari hasi nintzen hemen.

Orain idazkari nagusia zara.

> *“Gaztea nintzenean etxe guztietan baserritarrak ziren”*

Exekutiba, printzipioz, lau urtean behin aldatzen da. Zaila da hemen belaunaldi aldaketa. Lehen sektorean dabilen norbait izan behar da. Nik erle batzuk baino ez ditut eta horrek ez dit denbora asko kentzen. Baina, bestela, zaila da. Aurretik zegoen Patxiku Irisarrik ere, esplotazio txikia zuen.

Aurretik egindako lan tekni-





EHNE

"Funts batzuek enkantean ateratzen den guztia erosten dute"

koak asko laguntzen du orain eskaerak egokiro osatze aldera. Badira gauza asko, eta desberdina da.

Lehen sektoretik bizitzea geroz eta zailagoa da?

Batzuk nekazaritzatik bizi dira eta beste batzuek osagarri bezala dute. Biak dira beharrezkoak.

Baina, gaur egun, hasi nahi duenarentzat ez da erraza. Etxebizitzaren sektorean bezala, funts batzuek enkantean ateratzen den guztia erosten dute eta besteentzat ez dute ezer uzten. Landa eremuaren uberizazioa deritzo COAG-ek eta, ulertzen zaila den arren, egiten ari da. Luzera begirako errentagarritasunak egon beharko du atzean.

Gainera, udal batzuek ez dute komunalen inguruko ordenantzarik. Markoa nahiko zaharra da eta ez du profila argi zehazten. NPB-k, laguntzak emateko, hektareak hartzen ditu aintzat. Eta hektarea horiei gutxieneko erabilera eskatzen bazaio ere, ez zaio gutxieneko produkzioa eskatzen, eta alde handiak egon daitezke hor. NPB-k gauza onak ditu, baina hobetzekoak ere baditu asko.

Gazteak erakartzeko zailtasunak daude?

Belaunaldi aldaketa ez da gertatzen ari, baina, era berean, lursail onik ere ez dago libre. Lehen sektoretik bizi daiteke, eta horren erakusgarri dira nekazari asko. Akaso bizimodua da gazte askorentzat hain erakargarria ez dena. Enpresaburu bilakatu beharra dago, horrek dituen ardura guztiekin. Erosoagoa da nomina bat edukitzea..

Herri txikietan zegoen kultura ere galduz joan da, eta horrek ere badu bere balioa. Diskurtsoa garrantzitsua da. Bukolikoak izan gabe, gauza on asko ditu lehen sektoreak eta posible da horretaz bizitzea. Zailtasunak egon daitezke, edozein negoziotan bezalaxe, baina alde ederrak ere baditu. Errentagarritasunari begiratu behar zaio lehenik eta behin, jakina, baina herri batean bizitzeak, naturarekin kontaktuan, polita da; lana bera polita da.

Zein dira datozen erronkak?

Produkzio eta kontsumo kate itxuraz amaigabeari bukaera eman behar zaio, lurrak ere badituelako bere mugak. Beste ikuspegi bat behar da, agian errentagarritasun ekonomiko apalagoa izango duena, baina oreka bati lotzen zaiona.







ETXARRI

Ana Telletxea (Lekunberri)

Udazken arratsalde bateko azken argietan oraina oroitzapen hilezkor denean.



ADINEKOAK NAGUSI

Zedade, Beteluko hirugarren adinekoen egoitza

Zedade Beteluko behin-behineko zuzendaritza taldeko Aitziber Otamendi, Ainhoa Tobajas, Ainara Zubiria eta Lontxo Zubillaga azaroan sortuko den kooperatibaren xehetasunak eman dituzte. Izaskun Iriarte dute taldearen bosgarren hanka.

2004. urtean, Caja de Ahorros de Navarrak Beteluko hirugarren adinekoen egoitza zabaldu zuen, udalak helburu horretarako propio erosi zuen Sorobilla Hotela izandako eraikinean. Egoitzaren kudeaketa kutxak berak sortutako Amma taldearen bitartez egin zen hasiera hartan.

2010ean, baina, Banca Cívican sartu zen kutxa nafarra eta, bi urte geroago, CaixaBank-ek irentsiko zuen. 2016an, Adavir enpresaren jabetza zuen Maisons de Famille talde frantsesak, Amma erosi eta biak fusionatu zituen, Amavir sortzeko.

2025eko irailean, Amavirrek Beteluko eta Ibañetako adinekoen egoitza itxiko zituela iragarri zuen. Betelukoa, abenduaren 31n bertan.Eta halaxe jakinarazi zion Inés Francések, Nafarroako Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Agentziako zuzendari kudeatzaileak, udalari.

Beteluko Udala kontuak ateratzen hasi zen, proiektuari eustea ezinbestekoa baitze-ritzon. Baina 1.200.000 euroko aurrekontua zuen zahar-etxeak, udalarenaren bikoitza inguru. Arazo handi bat egonez gero, zuloak udala irentsi ahal zuen. Hori dela eta, inguruko udalekin biltzen hasi zen Betelukoa, proiektura batuko ziren galdetzera. Ez zuten, baina, atxikimendurik lortu.

45 bezerori zerbitzua eta 37 langileri lana ematen dien egoitza desagertzear zen. Hori gerta ez zedin, Beteluko Udala Amavirrekin eseri eta zesioa negoziatu zen, euro batean, zahar-etxeak aurrera egin zezan. Adostutako puntu garrantzitsuenen artean, sei-zazpi hilabeteko trantsizioan Amavirrek laguntzea zegoen. Horri esker,

> *45 bezerori zerbituzua eta 37 langileri lana ematen dien egoitza desagertzear zen.*

errazagoa izan da esku-aldatze prozesua. “Argi ikusten genuen Amavirrek nahiago zuela guk hartzea, Nafarroan beste egoitza batzuk edukita, ixteak



bere irudiari kalte egingo liokeelako", adierazi du Lontxo Zubillagak. Ordura arteko zorrak bere gain hartu zituen enpresak eta guztiekin bakean hasi zuen egoitzak ibilbide berria.

EH Bildu alderdiari esker, 100.000 euroko diru-laguntza izenduna jasotzeak ere asko erraztu zuen guztia, ikastaroak eta formazioa beharrezkoak baitzen. Etxean mantenu lan batzuk ere egiteke zeuden, eta horri ere buelta eman behar zitzaion, pixkanaka-pixkanaka.

Udalak ezin zuenez ardura guztia bere gain hartu, irabazi asmorik gabeko kooperatiba sortzeko aukera aztertu zen, Xabier Barinaga-Rementeria abokatuak lagunduta. Kooperatiban, udalak ezingo du gehiengoa eduki eta bezeroen, langileen eta bestelako eragileen artean banatuko da parte hartzea. Izen berria ere badu egitasmoak: Zedade. Zaintza Errespetua Duintasuna Adinekoen Egoitza.

Irabazi asmorik gabeko kooperatiba izanik, aurretik zen soziedade merkantila desagertuko da. Atzean ez da egongo, orain arte izan den bezala, negozio bat, baizik eta zerbitzu bat. Eta irabazten den guztia bezeroen eta langileen baldintzak hobetzera bideratua izango da.

Aldaketa honetan guztian zehar, kooperatiba izan gabe, kooperatiba bezala funtzionatu du egoitzak, Aitziber Otamendik koordinatzaile lana harturik.

Aipatu beharra dago kooperatibizazio prozesua bera ez dela erraza izan, egitura horretako beste adineko egoitzarik ez omen baitago ez Nafarroan, ez Estatuan. Eta badira, dagoeneko, beste eskualde batzuetatik, nola egin duten galdetzera gerturatu zaizkienak.

> ***Irabazi asmorik gabeko kooperatiba izango da.***

Hasieran, bizilagunen artean beldur batzuk igarri zirenez, bilerak egin ziren bideragarritasunaren inguruko azalpenak emateko. Gaur egun, herritarrak oso eskertuta agertu zaizkiela aitortu dute behin-behineko zuzendaritza taldeko kideek. "Jendeak bere inguruan geratu nahi du", nabarmendu du Ainhoa Tobajasek.

Sakanatik eta Leitzatik heldutako batzuk badira ere, bezero gehienek elkar ezagutzen zuten aurretik elkar. Beste leku batzuetan ez dagoen gertutasuna sumatu daiteke korridoreetan zehar. Zuzendaritzako kideak ere ezagutzen dituzte. "«Etor dadila alkatea!», esaten du batek konpontzeko zerbait dagoenean", komentatu du ba-



rre artean Lontxo Zubillagak. Zedade familia handi bat bezalakoa dela dio Ainara Zubiriak.

Langileendako ere aldaketa handiak datoz.

2013. urtean, etxea defizitarioa zelako aitzakia baliatuz, Estatu mailako lan-hitzarmenera lotu zituen enpresak langileak. Eta egoera irauli ezin izan zuten protesta handiak egin zituen plantillak, garai hartan, beren eskubideen alde. Orain, Nafarroako lan-hitzarmenera itzuliko dira eta, dagoeneko, berria langileak erakartzen hasi da. "Zaila da zenbait profil lortzea, izan garraioagatik edo bizitoki faltagatik, baina azkenaldian jende gehiagok erakutsi du prestutasuna edo interesa", azaldu du Ainhoa Tobajasek.

Orain, lehen ez bezala, psikologo bat izango dute egoitzan eta baita asteburuetan ariko den erizaina ere. Era berean, euskaldunak edo euskalduntze bidean dauden langileak lortzeko ahalegina egiten ari da.

> *Langileak Nafarroako lan-hitzarmenera itzuliko dira eta, dagoeneko, berria langileak erakartzen hasi da.*

Horrez gain, zerbitzua osatzeko egitasmoak jarri nahi dira martxan. Laster, beren etxeetan lo egingo duten hamar lagunentzako eguneko-zentro bezala ere funtzionatuko du egoitzak, eta, besteak beste, bazkariak banatzeko zerbitzua ematea aztertzen ari da.

> *Beren etxeetan lo egingo duten hamar lagunentzako eguneko-zentroa ere izango da.*

Egoitzak sukalde propioa du eta bere kudeaketaz kooperatiba arduratuko da, Aramark enpresarekin indarrean dagoen hitzarmena amaitutakoan, 2027an. Langile horiei ere, Zedaden lan egiten jarraitzeko aukera emango zaie, hala erabakitzen badute.

Adinekoen egoitzak hiru solairutan banatzen ditu erabiltzaile autonomoak, erdi-lagundurikoak eta lagundurikoak. Baina, erabiltze kopuruari dagokionez, egoitza txikia denez, beheko solairuan bildu daitezke guztiak.

Eraikinak Udalarena izaten jarraitzen du eta legeak ahalbidetzen duen gehienezko 20 urteko lagapena eman dio kooperatibari.





HITZ aspertuan

AGURTZANE ALTUNA

PAGOTXA

A ze mauka, a ze aukera, a ze pagotxa!. Ez da hitz arrotza, baño beste askokin pasatzean bezalaxe, bado bestelako aldaeraik pagotxa hitzek re.

Iparraldean bazen ikaragarri jakittune zen artzai bat; bizie bea izan zun eskola; kantue hizkuntza-akademia eta isiltasune filosofia masterreako unibersidade. Artzai harren ondoan esei eta hizketan aitze hutse, huexe zen pagotxa! Hizkuntza gauze bihurrie izaki, erne behar due belarrik baxenaparroko hitzek egoki josteko gure gogo-burutan.

Garaitxu hau izango zen, aspaldiko partez bixiten joan eta artzaien bueltan bildu giñena. Pozik zen gizona: ugari zela udazken hartan pagotxa, ta ongi zeailtzela oaindik bere ardik. Harren pagotxa ta gure pagotxa ez zeen guztiz gauze bea.

Pagotxa landare bat re bada. Hirustan familikoa da, lore gorri-granate bat izateo eta forraje bezala re ibiltzea. Halai, Urepeleko ospel epel haitan, pago-ezkurrei esaten die mugakideak pagotxa. Ta hizkuntza bihurrie pixkoat gehio bihurrittuz, pago-ezkurre edo pagotxa ugari den garaie, pagotxa izan datteke haitaz elikatzen deen azindantzako. Hala etortzen zeen basoan ibilitako zerrik, esate bateako, gizen-gizen inda etxea sanmartiñetaako. Horreatik zeon pozik artzaie, pagotxa zelako bere ardik pagotxa janez ikustea.

Baño, denak izaten omen do bere ifrentzue eta pagotxa ez da ba beti pagotxa izaten. Aurtengo lehorteakin normalean izaten ez deen belarrak atea dee baztarretan. Normalean jaten ez dittuen belarrak jan dittue azindak, tripeko miñez hil arte. Eo aurtengo jan-faltangatik pago-ezkurrei heldu die, esate bateako behorrak, batzuk enpo in ta lehertu arte.

Ta pagotxa hizpide hartu duun hontan, aurki da Black Friday. Egun bakarrean eozer gauze erdi prezioan; sekuleko pagotxa! Betekada pasatzeako, argi, turron ta eguarritako konprak; ta oaindik poltsa zulatun txin-txin hotsik bada, ilbeltzeko rebajak. Pagotxa, pagotxan atzetik. Ostiel beltzetik, ilbeltzea. Enpo in ta lehertu arte. Ez dakit oso ongi zeñentzako den garai hau pagotxa. Ustez sekuleko aukerak deelakoan behar ez deenak eosi eo behar baino gehio eosten ditton herritarrantzat, eo behorrak bezalaxe, pagotxakin enpo in arte kontsumoan aspille bete ta bete aitzen deen hointzako.

Ta bitartean, …nun hago, Urepeleko artzaia…

LEKUNBERRIKO FESTAK

Lekunberri


J.A. Garaikoetxea


J.A. Garaikoetxea

Urriaren 8tik 12ra izan ziren Lekunberriko festak. Programa zabal eta askotarikoa izan dute aurten ere. Besteak beste, txarangak, puzgarriak, pilota partidak, edotariko txapelketak, herri kirolak, bertso saioak eta kontzertuak izan dituzte lekunberriarrek.




J.A. Garaikoetxea


J.A. Garaikoetxea


J. A. Garaikoetxea







ARAIZKO ZAPOREAK FERIAREN 10. EDIZIOA

Arribe-Atallu

Urriaren 25ean, Araizko Zaporeen 10. feria ospatu zen Arribeko plazan.



Bertaratu zirenek etxeko sagardoak, gazta, esneki, ezti, talo, ogi eta barazkiak ezagutzeko eta erosteko aukera izan zuten. Horrez gain, eskualdeko artisauen lana ikusteko parada ere izan zen. Eta, bukatzeko, herri-bazkaria egin zuten.



MARKEL ARRIOLABENGOAK ETA JAKOBA ERREKONDOK ZUHAITZAKETA ARBOLAK LIBURUAREN AURKEZPENA EGIN ZUTEN ARAITZEN.

Araitz

Urriaren 23an, ostiralrarekin, Zuhaitzak eta arbolak liburuaren aurkezpena egin zen Araizko Udal Liburutegian, Markel Arriolabengoa eta Jakoba Errekondo autoreekin.

Sorpresa izan zen azken honen parte hartzea, ez baitzegoen iragarrita. Argiak argitaratutako liburuan 116 zuhaitz espezie aztertzen dira eta eskualdean hartutako argazki batzuk ageri dira.



MOTZ-MOTZEAN

Oskar Estanga

BILTZEKO BEHARRA

Larraungo gaztetxean hasi nintzen nire aurreneko bilerak izaten. Han erabakitzen ziren ze kontzertu egin, ze ekintza. nola dena antolatu... Magia iruditzen zitzaidan, sekulako boterea, aurretik hainbeste disfrutatzen nituen kontzertuak nola antolatzen ziren ikustea.

Hori bai, ardurak hartzea ere suposatzen zuen, dohainik gainera, guk egiten genuen barra, garbiketa, eskariak, taldeak behar zituenak... eta gainera kontzertuko sarrera ordaintzen genuen! Ez genuen ideia askorik, baina nahiko arduratsuak ginen. Hori bai unibertsitatea!

Ondoren, beste egoera askotan bildu naiz, borondatez eta lanez, batukadetan, dantza elkarteetan, euskal kantuzaleen elkartean, bertsozale elkartean... Denetan jarraitu dut fintzen biltzeak daukan boterea eta sortu ditzakeen desgasteak ere.

Ondorio nagusi bat atera dut. Bileran parte hatzeko modua “egin behar genuke” esatearen ordez “ni hau egiteko prest nago” bada, dagoen indarra egoki bideratze duela ikusi dut, frustrazio eta borroka asko ekidinez.

Badago biltzeko beharra eta nahia. Aurrera ba!



AMETS ARZALLUS LARRAUN-LEKUNBERRIKO FINALAURREKOAN IRABAZLE

Larraun eta Lekunberri

Urriaren 24an, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa jokatu zen Larraun-Lekunberrin.

Kabitzen ziren 1.500 bertsozaleen aurrean, eta Aizpea Garmendia gai jartzaile, Amets Arzallus atera zen garaile, 746,5 puntu erdietsita. Ondoren, Beñat Gaztelumendi (733 puntu), Saioa Alkaiza (689,5), Xabat Illarregi (674,5), Xabat Galletebeitia (664) eta Gorka Pagonabarraga (624) izan ziren.

Finalerdiko hitzordua aprobetxatuz, zozketa ederra prestatu zuten Mailopeko lagunek. Lehenengo saria (Antsoneak, Beteluko urak, Perkatzeneak, Urrutiak, Irurak eta Maite harategiak osaturiko saskia) Izaskun Bengoetxea ereñozuarrak eraman zuen etxera. Bigarren saria (Xabier Azpirozek sinatutako kamiseta) Mikel Sagastibeltza leitzarrarentzat izan zen.







Mailope



SAN MIGEL EGUNEAN HAMAIKETAKOA ETA AFARIA

Arribe-Atallu

Arribeko zaindaria den San Migelen eguna ospatu zen, bertako elkartean. Arduradunek, aurten ere, meza ondorengo hamaiketakoaz gain, afaria eskaini zieten Arribeko adinekoei. Belaunaldien arteko lotura polita balioan jartzeko eguna.





OZTOPO ZIRKUITOA ODERITZEN

Oderitz

Urriaren 17an, Euskara Zerbitzuak eta Paumak antolatuta, Euskaraz bai! egitasmoaren baitako oztopo zirkuitua egin zen Oderizko frontoian. LH 1. eta 6. maila bitarteko gazteak aritu ziren euskararen erabileraren aldeko erronkan.





MOTZ-MOTZEAN

Vero Satrustegi

AHMB: ABIADURA HANDIKO MARRAZKI BIZIDUNAK.

Jar gaitezen telebistaren aurrean eta jar ditzagun marrazki bizidunak. Tira, orain telebistaren beharrik ez da horiek ikusteko, egia da. Bada, jar dezagun Youtuben nahi dugun marrazki biziduna. Orain, Youtubek ematen digun aukera probestuz, bila ditzagun guk bere garaian ikusten genituenak.

Zer desberdintasun ikusten dituzu?

Orduko istorioek erritmo lasaiagoa zuten, pertsonaien abenturak jarraitzeak pazientzia, arreta eta irudimena lantzeko aukera ematen zigun. Gaur egungo marrazki bizidunak, ordea, gero eta azkarragoak dira. Kolore biziak, etengabeko mugimenduak, soinu ozenak eta bat-bateko eszenak nagusitzen dira askotan. Estimuluz betetako mundu horrek haurren arreta erakazen du, zalantzarik gabe.

Etengabeko estimuluetara ohitzen ari gara, txiki-txikitatik, eta bonbardaketa horrek zoritxarrez zailagoa bihurtu du arreta erakartzen diguten gauzak topatzea. Arazoa ez dira marrazki bizidunak. Agian arazoa da dena geroz eta azkarrago eta errazago jaso nahi dugula.



ZAINTZEN DUTEN DENDAK

Erosketaz harago: tiketean agertzen ez diren zaintzak

Erosketa baten atzean ikusten ez dena

EDUKI BABESTUA
Nafarroako Mendialdeko saltoki eta zerbitzuak gure herrien eguneroko bizitzaren parte dira. Egunez egun konfiantzazkoak bilakatzen diren elkartzeko eta elkarri laguntzeko guneak dira, herriak bizirik mantentzen eta pertsonek beren lurraldearekin duten lotura indartzen laguntzen dutenak.

Cederna Garalurrek RuralNav proiektuaren baitan sustatutako *Zaintzen duten dendak* kanpainak askotan oharkabean pasatzen den errealitate horretan jartzen du fokua. Horretarako, lanbidea pertsonenganako hurbiltasunetik ulertzeko modu bera partekatzen duten Nafarroako Mendialdeko hainbat lurraldetako saltokien testigantzak jaso ditu.

Saltzea baino askoz gehiago

Izan ere, zer esan nahi du zaintzak gertuko merkataritzarentzat?

Produktu bat saltzea lanaren zati bat baino ez dela. Beste zatiak jendearri entzun, lagundu eta ezagutzearekin du zerikusia. Ez betebehar profesionala delako, hurbiltasuna eguneroko bizitzaren parte delako baizik.

Kanpainan parte hartzen duten saltokietako batzuk proiektu gazteak dira eta beste batzuk, ordea, urteak daramatzate herriko hainbat belaunaldiri laguntzen. Guztietan behin eta berriz errepikatzen den ideia bat agertzen da: giza harremanak apalategietan dauden produktuak bezain garrantzitsuak dira.

Konfiantzak aldea marka dezakeenean

Istorio hunkigarrienetako bat familia baten kezkarekin hasi zen. Bakarrik bizi zen pertsona batek ez zion telefonoari erantzuten, ezta txirrinari ere, eta beldurra gero eta handiagoa zen: «Oso kezkatuta deitu zidaten, bakarrik bizi zen pertsona batek ez ziolako telefonoari erantzuten, ezta txirrinari ere. Atea irekitzea lortu nuen eta konorterik gabe aurkitu nuen, lurrean. Zorionez, osasun arreta garaiz jaso ahal izan zuen. Jendeari lagundu ahal izateak ematen didan poza da gehien betetzen nauen gauzetako bat». Hala oroitarazi du burdindegiko saltzaileak.

Ezohiko egoerak dira, bai. Baina lagungarriak dira saltokiak herri baten konfiantza sarearen parte direla ulertzeko.

«Zein polita den, larritasun une batean, norbaitek bere itxaropenik handienak zugan jartzea. Ez dut inoiz ahaztuko etxean erori ondoren deitu zigun pertsona bat, ezta lotarako botikak hartzen hogei urte baino gehiago eman ondoren, hilabete batzuen buruan, medikamentuak utz zitzan lortu genuen beste bat ere. Egun, oraindik ere, bisitan etortzen zaigu», dio botikariak.

Dena aldatzen duten keinu txikiak

Istorio deigarri bakoitzaren atzean errealitate ohikoago bat dago: eguneroko bezeroak zaintzen dituzten saltokiak, haien egoerak ezagutzen dituztenak eta erosketa batetik harago doazen harremanak bizirik mantentzen dituztenak.

«Produktu bat saltzea lanaren zati bat baino ez da. Beste zatiak jendeari entzun, lagundu eta ezagutzearekin du zerikusia»

«Saltoki txikietara joatea, batzuetan pertsonek elkartzeko, hitz egiteko eta une atsegin bat pasatzeko duten asteko momentu bakarra da»

Mugitzeko zailtasunak dituen pertsona baten sukalderaino erosketa bat eramatea. Mugitu ezin direnei eskariak hurbiltzea. Minutu batzuk eskaintzea telefono mugikor batek nola funtzionatzen duen azaltzeko. Egoera bakoitzera egokitzea, azken finean. Eta malgutasun hori gure konfiantzazko eta hurbileko saltokiek soilik eskaini dezakete.

«Berdin dagokizu erosketa bat bezeroaren sukaldera eramatea edo telefono mugikorrarekin laguntzea».

«Adineko pertsona batek hala behar badu, esaten digun lekuan utziko diogu erosketa».

Gauza txikiak direla pentsa daiteke. Baina beharra duenarentzat alde handia da.

Entzutea ere zaintzea da

Dendariak dira beren herrietako eguneroko errealitatea hobekien ezagutzen dutenak. Jendea astero ikusten dute. Haien errutinak ezagutzen dituzte. Zerbait aldatzen denean nabaritzen dute: «Pertsona batzuek hitz egiteko beharra dute, nola dauden kontatu edo beren kezkak partekatzeko. Herriak astero bisitatzen dituzunean, haien errutinak ezagutzen bukatzen duzu, eta zerbait aldatzen denean ere sumatzen duzu. Batzuetan norbaitek babesa behar duela edo memoriak huts egiten diola sumatzen duzu, eta diskrezio handiz senideei komentatzen diezu, badakizulako lagundu dezaketela», kontatu du merkatari ibiltari batek. «Bakarrik bizi direnak astean behin baino gehiagotan pasatzen dira, eta gurekin hitz egiteak poza ematen die. Eta poz hori elkarrekikoa da», gehitu du botikariak.

Herria bizirik mantentzen duten espazioak

Nafarroako Mendialdeko herri askotan dendara, burdindegira, farmaziara, azokara edo edozein saltoki txikitara egindako bisita, bisita soil bat baino askoz gehiago bihurtzen da: «Batzuetan pertsonek elkartzeko, hitz egiteko eta une atsegin bat pasatzeko duten asteko momentu bakarra da».

Horregatik, landa eremuko merkataritzaz ari garenean, komunitateaz ere ari gara. Pertsonak haien izenez ezagutzen dituzten lekuez. Konfiantza sortzen duten espazioez. Herriak leku



'Zaintzen duten dendak' kanpainan, saltoki txikietako dendarien testigantzak bildu dituzte. CEDERNA GARALUR

biziak eta abegikorrak izaten segi dezaten laguntzen duten negozioez.

Azkenean, kanpainan zehar bildutako istorio guztiek gauza bat partekatzen dute: saltoki bat pertsonen bizitzaren parte dela jakiteak ematen duen poza. Urte luzez irauten duen harremanak sortzea, auzokideen konfiantza lortzea eta laguntza, konpainia edo, besterik gabe, elkarrizketa behar denean, bertara joateko leku bilakatzea. Dendari ibiltari batek honela laburbildu zuen: «Saririk handiena itzultzea eta zure zain daudela ikustea da».

Zaintzen duten dendak, zaintzen diren herriak

Zaintzen duten dendak kanpainak Nafarroako Mendialdeko saltokien zaintza eta hurbiltasunari buruzko benetako istorioak ikusarazten ditu, Andoni Martin Torrecillas eta Nahia Cordon Terez Cederna Garalurreko eta Nafarroako Landa Merkataritza Dinamizatzeko Zerbitzuko teknikarien laguntzarekin. Istorio guztiak ezagutu nahi dituenak Interneten ditu eskura, Cederna Garalur elkartearen webgunean: *www.cederna.eus*.

Zaintzen duten dendak izeneko kanpaina hau Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuak finantzatutako RuralNav lankidetza proiektuaren parte da. Kanpaina honetan hauek lagundu dute: Arturo arropa denda (Bera); Maite harategia (Betelu); Urdiain botika (Urdiain); Hernandorena burdindegia (Leitza); Pixuke (Elizondo); Idoate okindegia (Idoiate); Echeverría arrandegia (Zangoza); Reparazea fruta denda (Agoitz); Farmacia del Árbol (Zangoza) eta Gallo autozerbitzua (Zangoza).

RuralNAV
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030
cederna garalur
consorcio EDER
Teder
Consorcio Zona Media Erdialdeko Partzuergoa

XABIER AZPIROZEK BURUZ BURUKO TXAPELKETA IRABAZI DU

Erremontea

Xabier Azpiroz erremontista uitziarrak 2026ko Buruz Buruko Eusko Label Txapelketan garaile atera da Endika Barrenetexea hernaniarra 30-29 garaituta.

Partida ederra eskaini zioten bi finalistek Galarretako harmailari. Uitziarrak aurrea hartu zion Barrenetxea VII.ari hasieran. Baina, 11-8 zihoazela, 8 tanto egin ahal izan zituen hernaniarrak jarraian, eta 11-16 jarri zuen markagailua. 21-21 jarri ziren finalistak gero eta, bukaera partean, lau tanto jarraian eginda, 29-25 jartzea lortu zuen Azpirozek. Aurkariak, baina, ez zuen amore emateko asmorik eta 29 puntutara berdindu zuen partida.

Barrenetxeak ezin izan zuen azken sakea aprobetxatu eta uitziarrak eraman zuen burura, aurrenekoz, Buruz Buruko txapela.


Mailope

SOKATIRA DENBORALDIA HASI DU ARAXES TALDEAK

Araxes HK / Sokatira


Araxes

2026/2007 denboraldia hasi berri du Araxes taldeak 6x6 390 kg. modalitatean.

Donezteben izan zuten lehenengo hitzordua eta, tamalez, ezin izan zuten espero zuten maila erakutsi. Aurkari zailenen kontra, oso txukun ibilita ere, galdu zuten eta, teorian, errazagoak zituztenen kontra ere ezin izan zuten irabazi. Aurreneko saioa izanik, hurrengoan arantza kentzeko gogoz daude.

MURUA LEKUNBERRIKO FESTETAN GARAILE

Pilota

Pilotarako tartea ere izan zen Lekunberriko festetan. Urriaren 11n, igandearekin, bi partida jokatzu ziren. Lehenengoa, bikotekakoa, Altuna III.ak eta Imazek irabazi zuten, 22-6,

EDORTA DE ANTA LEKUNBERRIARRA MUNDUKO TXAPELDUN

Pilota

Edorta de Anta lekunberriarrak urrezko domina eskuratu zuen trinketeko pilota egokituan, German Elkoro bikote zuela. Euskal selekzioaren ordezkariek Frantziakoak hartu zituzten mendean, 2-0 (15-10 eta 15-9), Argentina eta Uruguaiko Munduko Euskal Pilota Txapelketan.

Aurrenekoz jokatu zen pilota egokitua Munduko Txapelketan.


EPNF

Ezkurdiaren eta Albisuren kontra. Eusko Label 4 ½-ko partida Muruak eraman zuen Senarren kontra 22-10 irabazita.





Andueza

1630, Araitz haraneko agintearen amaiera

Nerea Iraola
Historialaria

XVII. mendean, Nafarroa Iparraldeko mendi-ibarrak, ahaide nagusien eta herrietako bizilagunen arteko gatazka sozialen erdigune bihurtu ziren. Herritarrak lehenengoen erregaliak zalantzan jartzen hasi ziren eta horrek, erregalia hauek eskaintzen zizkien bailaren gaineko agintaritza kolokan jarri zuen. Gatazka hauek mota askotako arrazoiak zituzten: eskumenak, alkatetza iraunkorra, elizetako lehentasunak, hamarrenak edota erroten eraikuntzak.

Testuinguru honetan, Araitz errege haranean, Andueza familia koka dezakegu. Larraunen ere izan zen nabarmendu beharreko familia bat, jaurgo bat sortuko zuen familia hain zuzen ere, Eraso leinua. Dena dela, Lezaeta eta Errazkin artean kokatzen den Erasotarren oinetxea beste tarte batean aztertuko dugu eta orain goazen Araizko Andueza familiaren nondik-norakoak azaltzera.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko Erdi Aroko iturriek "Andueça" leinua jada 1366-1367 urte tarteetan Atallun kokatzen zen oinetxe bati lotuta zegoela adierazten digute (Ruiz San Pedro, 2001). Ordea, Anduezatarren boterea benetan XVI. mendetik aurrera finkatuko zela nabarmentzen dute, izan ere, garaian familia honen buru zen "Johan Martinez de Andueza"-k partaidetza zuzena izan baitzuen 1512an Nafarroako erreinua Gaztelako koroaren eskuetan gera zedin.

Gertakari honek, Anduezatarrei entzute handia ekarriko zien eta Nafarroako errege gorteetako partaidetza eskuratuko zuten. Horrela, Johan Martinez de Anduezaren biloba zen "Fermin de Lodosa y Andueza" erreinuko funts nagusiko dirudain bezala izendatua izango zen 1592an, eta 1594tik aurrera, bere seme Pedrok hartuko zuen kargua. Bestalde, agiri hauek aipatutako karguaz gainera, Araitz haraneko "alcalde perpetuo" kargua ere oinordekotzan utzi nahi izan ziola aitak semeari ere azaleratzen dute. Herrien lege eta zerga kudeaketa gauzatzen zuen betiereko kargu hau jasotzea XVI. mende amaierarako ohitura bihurtu zen Adueza seme nagusi eta beraz, familia buruen artean. Oraingoan aldiz, haraneko herritarrak aurka agertuko ziren aita-seme hauen gehiegikeriekin itota.

Honako gertakari honek bai-larako 1595eko sorginkeria auzi ezagunak ekarriko zituen, Anduezatarren boterea berre-zartzeko ahaleginean. Hala ere, XVII. mende hasieran ez ziren Anduezatarrak soilik jada Araizko familia nagusiena, Atallutik gertu, Arriben Orellatarrek ere ospea irabaziko baitute XVI. mendetik aurrera Gaztelako koroak eskainitako kaparetasun eskubideari esker. Horren era-kusle da egun mantentzen den Orella oinetxeak sortutako ondare-multzoa (jauregia, errota eta Bideko Andre Mariaren ermita).

Kaparetasun edota noblezia unibertsalaren eskubideari lotuta, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gordetzen den 1620. urteko haraneko herritarrek Pedro Lodosa eta Anduezaren aurka jarritako auziak honako datu hau nabarmentzen digu: "todos los vezinos de la valle de Arayz son hijosdalgo en propiedad y possesion sin que devan pecha ni servidumbre alguna". Datu esanguratsu honek, XVII. mende hasieran jabetzak (etxea eta lurrak) zituzten araiztarrak kapare (behe mailako nobleak) zirela adierazten digu eta gainera errege auzitegiek onartuta, oraindik agerikoagoa eginaz. Beraz, Pedro Lodosa eta Anduezaren haraneko alkate iraunkor izatearen nahiak behin-betiko zapuztuta geratuko ziren, erregeak babestuta araiztar hauek ez baitzien lurrak lantzeagatik edo bizilekua izateagatik, ez zergarik, ez eta menpeko zerbitzurik zor.

Horrenbestez, Andueza leinuaren boterearen gainbehera azkartu egingo zen eta 1630ean haraneko orduko 7 herriek bat eginik (Atallu, Arribe, Azkarate, Uztegi, Gaintza, Intza eta Betelu) Felipe IV.a erregeari Araitz bailaren justizia kudeaketa eskubidea edota "jurisdiccion baja y media" (Yaguas Miranda, 1840-1843) erosiko zioten 500 dukaturen truk, Anduezatarren mendeetako menpekotasunetik betirako askatuz.

Itzal ona














Hona hemen mailu-arrain bat, olagarro bat eta bi sardina. Zein da horien itzal zuena?





Engainagarriak

Zortzi txatal horien artetik erdiak iruditik hartuta daude, eta gainontzeko laurak engainagarriak dira. Hau da, ez dator bat irudi nagusiarekin.



















AGENDA

AZAROAK 6, 7, 8, 11

Asteburua eta asteazkena

Aldazko festak

AZAROAK 11, 13-15

Asteazkena eta asteburua

Gaintzako festak

AZAROAK 21

Larunbata

18:00 Gora Gora Fest

Familientzako ikuskizuna
Gabarin.

AZAROAK 27

Larunbata

18:00 Haurrentzako ipuin antzeztua

Gorritin

MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzi eta Uztegi.

ARGITARATZEN DU

Mailope Kultur Elkartea.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
http://mailope.eus

ERREDAKZIOA

Ainhoa Beraza, Ainhoa Iriarte, Iker Aranburu, Ane Ubegun, Haritz Larrageta, Jon Urtasun, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

PUBLIZITATEA

Haritz Larrageta - 660 476 041
info@mailope.eus

TIRADA 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

mailope
Araitz I Betelu I Larraun I Lekunberri

LARRAUNGO UDALA
Bagoaz batera

Lekunberriko Udala
Ayuntamiento de Lekunberri

ARAIZKO UDALA

Beteluko udala
Ayuntamiento de Betelu



errigora

Auzolanean euskara

sustraitik espaziora



Eskatu zure saskia eta eman **%25 Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzari**

errigora.eus

urriak 22 - azaroak 12

Saski beltza 60€

eko **Saski berdea** 65€

Saski gorria 75€

+ osagarria: **“euskararen haziak ereiten” egutegia** 10€